

EUSKARA = VASCUENCE. Portugaletetik F. Martínez jaunaren galdea jaso dugu, *euskera* edo *euskara* erdaraz *vascuence*-tzat erabiltzea zuzena den ala ez galdetuz, *El Correo de la Unesco* aldizkarian 1985eko urtarriletik, hizkuntzen zerrendan *vascuence* datorrenez aldizkari hori gure hizkuntzara itzulirik *Unesco-ren Albistaria* izenburuz hasia delako.

Hortarako *Egan*-en 1983ko ale bakarrean 197. orrialdean «Vascongado»-z idatzi genuenak balio du: *vascongado* = *euskaldun* den neurrian.

Unesco-k euskarazkoan *euskara* jarri badu eta erdarazkoan *vascuence*, eritzi zuzenez ibili da.

Argitasun gehiago eta zehatzagoak jakin nahi dituenak, deituen jatorriak ere argituz, Durvan-en *Gran Diccionario Enciclopédico* delakoan Antonio Tovar-en lan batean aurkituko du, edo oraintsu Koldo Mitxelenak zehatzago eman duen lanean (ikus RIEV, año 32, — Tomo XXIX, N.º 1, 9-29 orr.).